250. zk.
Bigarren aroa
Apirilak 1
2015

Irungo euskarazko hamabostekaria

Irunero

Euskara plazara!

Kirola
Sport Jamek, 10. urteurrena ospatzeko, udan azoka bat antolatuko du.
8. orrialdea

Gaztea
Borja Olazabal irundarrak *El Conquistador del fin del mundo* telebista saioan parte hartu du.
13. orrialdea

3 **Erreportajea:** Beñat eta Iñaki Alberdi, makilaren zaindari.
4 **Erreportajea:** Enpleguaren egoera Irunen.
5 - 6 - 7 **Korrikaren argazkiak.**
9 **Kirolak:** Bidasoa Irun eskubaloi taldea euskalduntze lanean dabil.
10 **Haurren Leihoa** Irungo La Salle HH
11 **Erreportajea** Andoitz Villafranca eta Asier Alberro AEK Mus txapelketako irabazleak.
12 **Gazteen lanak** Txingudi Ikastola BHI
14 **Gazte infor**
15 **Kultur agenda**

Jaso ezazu IRUNERO etxean !!
jarozena@irunero.com
693 828099

Korrikak ere, 365 egun

Iñaki Goikoetxea

Orain dela urte batzuk eta Euskararen Nazioarteko Egunaren harira, abenduaren 3an ospatzen dena, Euskal Herrian zehar kanpaina bat zabaldu zen "Euskarak, 365 egun" lelopean, gure hizkuntzaren erabilpenaren aldarria urteko egun guztietara zabaltzera gonbidatzen zuena. Bat egiten dut ideia honekin eta, azken egunetan, euskararen mundutik beste esparrutara eraman beharko genukeela ikusi dut.

Azken hilabetean Korrika izan da gure errepide, herri, hiri eta mendietan; berriro ere, irudi paregabeak euskararen aldeko lasterketak utzi ditu! Txingudi aldera ere iritsi zen Korrika asteburuan eta, euripean bada ere, mota guztietako jendea ikusi genuen lekukoaren atzetik: haurrak, gazteak, helduak, zaharrak, politikariak, politikan sinesten ez dutenak, abertzaleak, abertzaleak ez direnak, ikastolakoak, itunpeko ikastetxekoak, kirolariak, bi urtetan behin bakarrik korrika egiten dutenak... une batez eta guztiak irundarrak izan arren, urtean zehar harremanik ez duten pertsona eta elkarteak batera ikusten genituen. Korrikak mesfidantzak desagerrarazten ditu... baina Korrika bukatzean, magia hori ahazten da eta, berriro egunerokotasunean gaudenean, betiko galderetara itzultzen gara: ze elkartek antolatzen du ekitaldi hori? ze alderdi politiko (edo alarderen) alde egiten du pertsona horrek? non izango da hain interesgarria izan daitekeen hitzaldi hori? Horrelako galderek eta aurreiritziek norberaren bizitzan eragina dute.

Bai, azken galdera ere gure inguruan ematen da, oso eroso sentitzen garelako gure betiko tokietan, eta zaila egiten zaigulako hiriko beste txokoetara joatea: besteak beste, Kale Nagusia, Urdanibia-Mosku ingurua, Luis Mariano edo Cipriaño Larrañaga kalea ("Calle de la Mierda" ezizenarekin ere ezagutzen dena). Irun horrelako hiruzpalau girotan bana dezakegu eta koadrila asko ez dira bere betiko lekutik ateratzen direnak. Horrela zer lortzen da? Aldi berean egon gaitezke hiri berdinean, baina ez gara elkarrekin bizi.

Egoera hau saihesteko, proposamen bat: Korrikaren izaera edo espiritua gogoratzea eta normalean hain hurbilak ez diren txokoetara edo pertsonengana hurbiltzea; gizartearen beste ikuspuntua ezagutzeko aukera paregabea izan daiteke, hain anitza den gure Irunen!

Irun atzo Irun gaur

Santiagoko kaia

IUA: 48928

IUA: 38311

Erdi Aroan Irunek, Konpostelarako erromesaldien ibilbidean kokaturik, berebiziko garrantzia izan zuen, geuretik igarotzen baitziren Frantziatik zetozen erromes asko. Oinezkoek Bidasoa ibaia Santiago deritzon ibitik zeharkatzen zuten, eta zaldizkoek, Behobitik. Igarotzea errazteko, XIV. mendean zurezko zaldain edo pasabide bat eraiki zen. Antza, ibaiaren bokalea alderik alde lotzen zuen zubiaren jatorria erromatarren garaikoa zen. Hain zuzen, garai hartakoa dira orain urte gutxi Santiago auzo inguruan aurkitu zutenaren hondakinak.

Igarobidea Zubernoako Priorerriko monjeek bultzatu zuten. Egoitza gaur egungo Santiago zubiaren ondoan zuten, ibaiertzean, orain Port Bidassoa deitutako urbanizazioan. 1357. urteko dokumentu batean eraikin hura Santiago Zubernoako ospitalea zela aipatzen da, erromesen zerbitzura zegoena. Aurrerago hedadura handiko priorerri bilakatu zen, Hendaiako gaur egungo trengeltokitik Urruñako eta Biriatuko lurretaraino zabaltzen zena.

Frantziako Iraultzaren ondorioz, eraikinak Hendaiako udalaren eta partikularren eskuetara pasa ziren.

Zubirik ez zegoen garaietan, Bidasoa ontziz igarotzea alternatiba bakarra zen. Ontziralekua prioretxearen aldamenean zegoen, beheko argazkian ikus daitekeena. Irun aldeko kaia egungo bidegorrian zegoen. Argazkian argi azaltzen dira horma eta arrapala. Bi irudiok XX. mendearen hasierakoak dira, “Avenida” zubia eraiki baino lehenagokoak.

Irunero

Erredakzioa eta maketazioa:
Joseba Arozena eta Unai Oiartzun
Euskara zuzentzailea:
Xabier Kerexeta
Publizitatea:
Sonia Garcia Olazabal, Amaia Terrazas
amaiaterrazasruiz@gmail.com

Ion Otxoa
ion@943sansebastian.com
Argitaratzailea:
Baseclick S.L.
ISSN: 1134-0606
Lege gordailua:
SS-230-94.
Maiatzaren Lehena, 23 - 20304 IRUN
Tel: 673 39 84 57

Ayuntamiento Udala
irun
www.irun.org
Erakunde honek Irunero diruz laguntzen du

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, POLITICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA
Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

Gipuzkoako Foru Aldundia
Erakunde honek Irunero diruz laguntzen du

Makilaren zaindari

Irunen dago Hego Euskal Herria osoan bastoi tradizionala lantzen duen azken tailerra

Deskarga kaleko seigarrenean sartzea denboran atzera egitea da. Bi mizpirondo daude eraikinaren atarian. "Alberdi" abizena tailatua duen oholak ongi etorria ematen dio bisitariari, egurraren eta artisautzaren erresuma txiki honetara. Etxabea familiako tailerra da, xumea bezain berezia. Antzinako usaina dario. Zorua zurezkoa da, eta lanerako tresnek eta makinek zahar itxura ematen diote. Hogeita hamar urte baino gehiago eman ditu Iñaki Alberdik tailerrean makilak egiten. Duela urte eta erdi Beñat semeak hartu du lekukoa.

Beñat eta Iñaki Alberdi, egin duten makila batekin.

Hirugarren belaunaldiak ere egurraren inguruko lanari lotuta jarraitu du. Aitona tailugile fina izan zen. Aitak makilak lantzeari ekin zion, eta Beñat Alberdik haren bideari heldu dio orain. Txikitatik ikasi zuen ofizioa, aitari lagundu izanaren ondorio. Beste lanbide batzuetan ere aritu izan da geroago, Tesa enpresan komertzial moduan, esate baterako. Baina bazekien aitak erretiroa hartzerakoan haren hutsunea beteko zuela: "Gaztetan beste zereginetan aritu izan naiz, eta munduan zehar bidaiatzeko aukera izan dut. Baina orain gustura nago etxean, familiako enpresari eusten", azaldu du Beñat Alberdik. Aitak eskertzen du erabakia: "Pena litzateke hau hiltzen utzi izan bagenu".

Aitarengandik artisautzarako zaletasuna jaso ondoren, 1980ko hamarkadaren hasieran erabaki zuen Iñaki Alberdik euskal makilak egiten espezializatzea. "Iparraldean egiten ziren oraindik, baina Bidasoaren hegoaldean ia galdutako produktua zen". Gaur egun bizpahiru artisau besterik ez daude Euskal Herri osoan makilak egiten. Euskal bastoi tradizionala da makila, eta mendeetako historia dauka. Euskal ondarearen ikurretako bat da. 1936ko gerraren aurretik erabili ohi zituzten makilen "erreplikak" egiten dituzte Lapitze auzoko tailerrean. "Makila tradizionala mizpirondo egurrez egindako bastoia da, gogorra, malgua, dotorea eta eskuz landua. Begirunearen eta boterearen ikurra da", argitu du Iñaki Alberdik.

Ibilaldietan sostengu izateaz gain, babeserako arma ere bazen makila garai batean, heldulekuaren barruan ezkutatutako eztena dela eta. Goardia Zibilaren bisita jasotakoa da Iñaki Alberdi, ezaugarri horren ondorioz. Baimenik gabe armak ekoiztea leporatu zioten, baina antzinako objektuen erreprodukzioak egiten zituela frogatu ahal izan zuen. Gaur egun, apaingarri edo opari izaten dira euskal makilak. Azken lehendakariez gain, mundu osoko politikari, kirolari eta artistek jaso izan dituzte Alberditarrek egindako makilak. Joan Paulo II.a, Ronald Reagan, Emil Zátopek, Gerry Adams, Adolfo Suárez, Camilo José Cela, Jorge Oteiza, Bernando Atxaga eta Juan Martinez de Irujo daude, besteak beste, zerrenda esanguratsu horretan.

Metodo tradizionalari eutsi dio semeak

Teknologiak zer edo zer erraztu badu ere, aitarengandik ikasitako prozedura mantentzen du gaur egun Beñatek. Udaberrian Pirinioetako basoetara joaten da, mizpirondoak aukeratzera. "Adar onenak ematen ditu, sendoak eta malguak", azpimarratu du Alberdik. Markak egiten dizkie adarrei, olatuak eta puntuak. Makilaren ezaugarri diren forma bilakatuko dira denboraren poderioz. Neguan bueltatzen da adarrak moztera, ilbeherarekin batera. Lanaren zatirik "erromantikoena" dela onartu du Alberdik. Azala kentzeko labean sartzen ditu, eta, kolorea emateko, gorotzetan edo kare bizitan. Adarrak zuzendu behar badira, beroaren laguntzaz egiten du. Lehortzen uzten ditu gero makilak, egonkortu daitezen. Bost urte beharko dituzte, gutxienez, prozesuarekin aurrera egin aurretik.

Eskuz landutako letoizko zorroa darama makilak beheko muturrean, eta txirikordatutako larru beltza eta adarrarekin egindako bola, goikoan. Ohorezko makilek zilarrezko heldulekua izaten dute. "Bastoi merkeagoak saltzen dituzte. Baina ez dira euskal makilak", argitu du Beñat Alberdik. Makila arruntek 300 € inguru balio dute. Ohorezko makilek, 500 €tik gora. Artisau lanetik bizi ahal izateko, ehunka makila saldu behar izaten dituzte urtean. Krisiarekin salmentak behera egin duela baieztatu du artisauak: "Luxuzko produktua da, eta norbanakoen artean jaitsi egin da eskaria. Enpresei eta erakundeei esker eutsi diogu". Gaur egun, Beñat Alberdiz gain beste langile batek lan egiten du tailerrean. Soldata handia izan gabe, modu "duinean" bizitzeko adina ematen duela nabarmendu du artisau gazteak. Balio erantsia du, gainera, lanbideak. Ahanzturatik babesten dute euskal makila.

Datuetatik harago

Irungo enpleguaren egoera aztertu dute ELA eta CCOO sindikatuetako ordezkariek

Otsaileko langabeziaren datuei erreparatuta, Irunen argi izpi txiki bat ageri dela pentsa daiteke. % 17,6koa da azken langabezia-tasa. Urtarrilekoa eta joan den urteko otsailekoa baino % 0,3 txikiagoa. Dena den, Gipuzkoako batez bestekoa, % 13,6koa, urrun dago oraindik. Edonola ere, datuak aztertzeaz gain, analisi sakonagoa egin beharra dagoela baieztatu dute sindikatuetako ordezkariek.

Pablo Garmendia, ELAren ordezkaria eskualdean

Zenbakiak eta ehunekoak erabili ohi dira enpleguaren azterketa egiteko. Horietara mugatuta, argi dago langabezian dagoen biztanleria aktiboaren kopuruak behera egin duela Irunen. “Hori egia da, datu objektiboa da”, onartu du Pablo Garmendia Bidasoko ELA sindikatuko ordezkariak. “Baina hamarreneko bakar batzuen kontua da, eta zenbakiak oso larriak dira oraindik”, azpimarratu du. Euskadiko Langile Komisioak-CCOO sindikatuko Gema Fernandezek uste du datu horrekin ezin dela baieztatu hiriko enpleguaren egoerak hobera egin duenik. Zailtasun egoeran dauden enpresak gogoratu ditu Fernandezek: “Erregulazio espedienteak, hartzekodunen konkurtsoak, izoztutako soldatak edo soldata murrizketak. Denak ditugu eskualdean”.

Azterketa zabalagoaren beharra azpimarratu dute biek. ELA sindikatuko egoitzatik, Irungo erdiguneak bizi izan duen eraldatzea ikus daiteke. Denda eta negozio ugari itxi dituzte azken urteotan. “Merkatari txikia sufritzen ari da, salmentek behera egin dutelako”, baieztatu du Pablo Garmendiak. Gema Fernandezek beste arrazoi bat ere jarri du mahai gainean: alokairu-errenta zaharren desagertzea. Elkarteetan bildurik eta jarduerak antolatuta, hirigunea biziberritzen ahalegindu dira merkatariak. Baina zail dute aurkari erraldoien kontra lehiatzea. Enpresa multinazionalen alde Behe Bidasoko eta Oarsoaldeko udalek egin duten apustua salatu du ELAko Pablo Garmendiak. Elikagaien sektorean jarri du arreta, bereziki: “Eskualde hauetan egin izan dena absurdoaren mugan dago: Alcampo, Carrefour, BM, Super Amara, Dia, eta orain Mercadona? Kontsumitzaile nahikorik ez dago”.

Multinazionalen aldeko apustua

Industria eremuetan kokatzen ari dira zerbitzuetako enpresa multinazionalak. “Laster izena aldatu beharko diegu”, adierazi du Garmendiak. Industriaren sektorea berreskuratzeko apusturik egin ez izana egotzi die ELAko ordezkariak eskualdeko udalei: “Haiek eman dizkiete baimenak multinazionalei. Bultzada eman diete”. Enpresa handi horiek lanpostuak sortzen dituztela esan izan da justifikazio modura. Hala ere, baieztapena “iruzurra” dela uste du Pablo Garmendiak: “Lanpostu prekario baino prekarioagoak sortzen dituzte. Saltoki horietako batean lan egiten duen gazteak ez ditu bermatuta etxebizitzarako aukera eta bizitzeko gutxieneko baldintzak”. Azken aldian sortu den enplegua nolakoa den aztertzeak bestelako ikuspegia eman dezakeela uste du CCOOko Gema Fernandezek: “Aldi baterako lanpostuak izaten dira, gehienetan lanaldi partzialekoak”.

> “Lan partzialeko bi kontratu dituen pertsona bi afiliazio dira Gizarte Segurantzan”
>
> Pablo Garmendia, ELA

Langabeziaren datuak tentuz irakurtzera darama azalpen horrek. “Lan partzialeko bi kontratu dituen pertsona bi afiliazio dira Gizarte Segurantzan”, argitu du Pablo Garmendiak. Zerrendetan agertzen ez den beste kolektibo bat ere gogoratu du ELAko ordezkariak: “Badago jende asko jada langabezian apuntatzen ez dena, prestazio guztiak bukatu zaizkiolako; ez daukana inolako diru-sarrerarik. Seme-alabei egunean hiru aldiz jaten emateko arazoa du jende horrek”. 55 urtetik gorako langabeen egoera nabarmendu du Gema Fernandezek: “Lan merkatutik kanpo gelditzeko arrisku handia dute”. Irunen langabeziaren kontra lan egiteko neurri zehatzak proposatu ditu CCOOko ordezkariak: “lanbide heziketa sustatzea, proiektu ekintzaileei babesa ematea eta jarduera berritzaileen inguruko ekimen enpresarialak bultzatzea”. Bide bata edo bestea hartu, sindikatuetako ordezkariek argi dute susperraldia motela izango dela.

TIPI-TAPA, TIPI-TAPA KORRIKA

Martxoaren 21ean, eguerdian, Korrika Irunen barrena igaro zen eta ehunka pertsonak euskararen alde lasterka egin zuten. Adin guztietako jendeak parte hartu zuen kilometro bakoitzeko lekuko-eramalearen atzetik, tipi-tapa, Bilborako ibilbidearen zati bat egi-nez. Giroa paregabea izan zen. Korrika igaro zen bigarren aldian Belen Sierrra Kulturako Udal Ordezkariak lekukoa eraman zuen. Erreportaje honetako argazkietako batean Iban Eguzkiza Euskara Arloko zuzendariarekin agertzen da.

BAKAILAOA DASTA EZAZU

la bacaladera

bacalaos SANTYMAR

RJ BACALAO

la barajilla bacalao

Egullor

Aurtengo ordutegia lagun, familia ugarik parte hartu zuen 19. Korrikak Irunen egin zuen ibilbidean zehar.

Euskal Herria Hamaika Kolore elkarteak Korrikan parte hartu zuen, xenofobia eta arrazakeriaren kontrako nazioarteko eguna zela eta. Fermin Muguruzak ekimenarekin bat egin zuen.

Anaka kalea, 8 - IRUN 943 667780

CASER ANAKA

Caser
RESIDENCIAL

GURE AITONA-AMONEN
ONGIZATEA HELBURU

Egonaldi iraunkorrak
eta aldi baterakoak

Zubieta, 121 - HONDARRIBIA 943 647169

CASER BETHARRAM

Hamar urte bete ditu 2015ean Sport Jam azokak. Ospakizun modura, bi edizio egingo dituzte aurten Ficoba erakustazokan: azaroan ohiko azoka, eta maiatzean berezia, udako sasoiari zuzendutako edizioa izango dena. Surfean, urpekaritzan edo piraguismoan lehen urratsak emateko piszinak prestatuko dituzte, skate park-a egongo da, eta aurkezpenetarako espazioa.

Udan ere, SPORT JAM

Surfaren inguruko feria moduan jaio zen Sport Jam 2006an. Skateboard-ean eta Scooter-ean espezializatu ondoren, jatorrira bueltatuko da 2015ean. Udako edizio berezia antolatu dute hamargarren urteurrena ospatzeko. Maiatzaren 16an eta 17an izango da, Ficoba erakustazokan. Surfa izango da azokaren zutabe nagusietako bat, olatuak sortzeko piszinarekin, eta kongresu edo foroarekin. Asier "Axi" Muniainek parte hartuko duela azpimarratu du Estanis Polo antolatzaileak: "Muniainek duen arazoa da etxekoa dela. Badirudi horrek garrantzia kentzen diola. Baina Billabong XXL sarietan finalista izandakoa da". Olatu handietan aritzen diren surflariei ematen diete Billabong XXL saria. Surfaz gain, piraguismoak, urpekaritzak, irristatze-kirolek eta eskaladak ere tokia izango dute. Sport Jamek noiz edo noiz hartu dituen kirolak bilduko ditu edizio bereziak. Hogeita hamar erakusle inguru espero dituzte.

Prezioen aldetik, beherapenak

"Sport Jam ez da horren elitista izango"
Estanis Polo

eskainiko dituzte, hamargarren urteurrenaren harira. 6m²ko postua jartzeak 890€ balio izan du aurreko edizioetan, baina maiatzekoan 490€-koa izango da prezioa. Bisitariei begira, 9 €tatik 5 €tara jaitsi dituzte sarrerak. Bestelako bisitari mota bat erakartzeko ahalegina ere badela onartu du Polok: "9 € benetako zaleak bakarrik ordaintzen ditu. Beherapenarekin, uste dut ikusmina duen edonor ere etor daitekeela azokara. Nolabait esateko, Sport Jam ez da horren elitista izango". Hala ere, Poloren lehentasuna ez da bisitarien errekorra gainditzea. 6.000ren inguruan aritu izan da azken urteetan. "Nahiago dut erakusleek salmenta- edo promozio-helburuak bete ditzaten, eta bisitariak Ficobatik pozik atera daitezen", argitu du antolatzaileak. Denetariko kritikak jasotzen ditu urtero Estanis Polok. Badaki horretarako prest egon behar duela: "antolatzaile zaren momentutik, badakizu komentario onak eta txarrak jasoko dituzula; batzuk zintzoak, beste batzuk asmo txarrekoak".

Urte osoko lana behar izaten du Sport Jam azokak. Hamar lagun aritzen dira Stanis Polorekin batera lanean, une eta intentsitate ezberdinetan. Salmentak, komunikazioa eta diseinua, adibidez, delegatu egiten ditu. Zenbait fase izaten ditu prestaketak, aurreko edizioaren balantzetik azokaren amaierara arte. Hamar urteren ondoren, dinamika barneratuta dute. Baina Polok ez luke erosokerian erori nahi: "azoka kontsolidatuta dagoela pentsatzea eta aurreko edizioetako formula errepikatzea akats larria litzateke". Merkatua aldatu egiten da etengabe, eta orain arte, egokitzen jakin du Sport Jamek. Ideia eta formatua mantenduta, edukia ia urtero aldatu izan dute antolatzaileek. Horretarako, oso adi egoten da Estanis Polo: "Oporrak hartzen ditudanean ere, bidaiatu egiten dut, azoketara joaten naiz, dendak ikusten ditut. Ideiak biltzen saiatzen naiz". Fase gehienak gaindituta, azken urratsak ematen ari da, hamargarren urteurreneko edizio bereziak aurreikuspenak bete ditzan.

Hogei urte baino gehiagoko esperientzia

Nazioarteko Merkataritza ikasi zuen Estanis Polok Baionan. Biarritzeko hondartzan izan zuen lehen kontaktua azokekin, 1990eko hamarkadaren hasieran. Haren ondotik, 80 azoka baino gehiago antolatu ditu. 2002an, Behe Bidasoko lehen surf azoka kudeatu zuen Hondarribian. Hurrengo urtean Snowjam sortu zuen Jacan. Snowboard-ean espezializatutako azoka zen. Madrilgo Xanadu elur-pista estalira lekualdatu zuten geroago. Michel Hoff enpresariaren bisita jaso zuen Polok Madrilen. Irungo Ficoban surf feria antolatzeko ideia azaldu zion. Irundarra izanik ere, Estanis Polok ez zuen argi ikusten: "Azpiegitura egokiak leku askotan aurki ditzakezu, baina azokak bestelako lotura bat behar du inguruarekin". Hala ere, Sport Jam delakoa antolatu zuten. Bilakaera handia izan du azokak, eta erakusleak eta bisitariak erakartzen asmatu dute, hamar urte betetzeraino.

Estanis Polo antolatzailea Ficobako kanpo aldean.

AVIA
Gasolindegia
VRANZV, S.A.
Avda. Navarra, 18 - 20304 IRUN
Tels.: 943 62 51 83
Fax: 943 63 04 98
Javier Aguirre Lasa
Gerente
javier @avia-uranzu.com
www.estaciondeserviciouranzu.com

Elkartea euskalduntzeko bidean da Bidasoa

Euskararen erabilera normalizatzeko planaren balantzea egin du Bidasoa eskubaloi taldeak. Irungo Udaleko euskara arloak bultzatuta ekin zion lanari duela zazpi urte. Tartean, elkarteko giroa "euskaldundu" dela uste du Aritz Sodupe euskara arduradunak. Hasieran egindako diagnosian finkatutako urratsak jarraitu ditu elkarteak. Gainera, neurri berritzaileak hartu ditu aspaldi honetan.

Bidasoako Aritz eta Jose Angel Sodupe, eta Fernando San Martin Udal Euskara ordezkaria.

2002an jarri zuen martxan Irungo Udaleko Euskara Arloak *Kalean Bai* egitasmoa. Hiriko elkarteetan euskara sustatzea helburu duen programa da. Haur eta gazteentzat antolatzen dituzten ekintzak euskalduntzea da haren lehentasunetako bat. Fernando San Martin Udalaren euskara ordezkariak azpimarratu du aisia eta kirola euskalduntzeak berebiziko garrantzia duela Irungo errealitate soziolinguistikoan: "Euskararen mugak zabaldu nahi baldin baditugu, ezinbestekoa izango da haur eta gazteek hizkuntzarekin ondo pasatzea. Kiroleko eta aisialdiko jarduerek horretarako aukera paregabea eskaintzen dute". Errealitate horri helduta, Bidasoa eskubaloi taldeak eraldatze nabarmena izan du azken urteotan. Elkartearen diagnosia egin zuen SIADECO enpresak 2008an, Irungo Udalaren enkarguz. "Diagnostikoa eta Hizkuntza-Plana" izenburuarekin, CD Bidasoa elkartean euskararen erabilera areagotzeko helburuak finkatu zituen orduan. Aritz Sodupe elkarteko euskara arduradunak uste du erronka horiek bete egin dituztela: "Denbora behar dugu, hizkuntza ohiturak ez baitira egun batetik bestera aldatzen. Hala ere, pozik gaude azken urteotan egindako lanarekin". Jose Angel Sodupek presidente karguan daramatzan hamabi urteetan, goitik behera aldatu da zuzendaritza-taldea. Aritz Sodupek baieztatu du gaur egun haien arteko harremanak euskaraz izan daitezen saiatzen direla: "Kluba goitik behera euskalduntzeko ahalegina egiten ari garela esan genezake".

Hamasei talde federatu ditu Bidasoak. "Hamar-hamaika talde dira gaur egun euskaraz funtzionatzen dutenak", azaldu du Sodupek. Hartara, entrenatzaile euskaldunak bilatzeaz gain, neurri bereziak hartu dituzte: "Haurrekin diagnostikoak egiten ditugu, eta euskararen erabilera neurtzen dugu. Hezitzaileei zuzendutako gidaliburua ere prestatu dugu, euskara sustatzeko jarraibide gisa". Ahoz eta idatziz ematen dituen mezuetan, klubak euskararen presentzia bermatu du: partiduetako sarreretan, karteletan, izenemate orrietan, material didaktikoan, lehiaketetako araudietan. Irungo eskolekin sinatutako hitzarmenei esker, eskubaloia ezagutzeko eta praktikatzeko aukera eskaintzen dute, eskola orduetan eta euskaraz. Bereziki azpimarratu nahi izan du Sodupek aurten bost edizio beteko dituen udako kanpusa.

Neurri zehatzak

Berrikuntza modura, lau ekimen zehatz aurrera eraman ditu aurten CD Bidasoak. Euskarazko terminologia jasotzen duen hiztegia landu zuen klubak duela zazpi urte. Orain birpasatu eta Eusko Jaurlaritzak ateratakoarekin alderatu dute. Klubaren web gunean eskegi eta federazioetara bidaliko dute. "Ea denon artean lortzen dugun euskarazko terminologia hori adostea", adierazi du euskara arduradunak. Klubaren ereserkia euskaratu eta grabatuko dute, Ametsa Gazte abesbatzarekin eta Irun Hiria Bandarekin elkarlanean. Web gunea elebidun bilakatzeko urratsak ere eman dituzte, euskara arloko itzulpen zerbitzuaren laguntzaz. Orain arte atal finkoak besterik ez zeuden euskaraz. Baina albisteak eta kronikak euskaraz argitaratzen hasi dira. Laugarrena bereziena da. Lehen taldeko jokalariei zuzendutako euskara klaseak antolatu ditu Bidasoak. Taldeko atzerritarrek, eta euskaraz ondo moldatzen ez direnek Herri Jakintza Euskaltegiko irakasleen eskutik trebatzeko aukera izango dute. Astean behin egingo dute, Artalekuko prentsa aretoan. Mikhail Revin errusiarraren kasua nabarmendu du Aritz Sodupek: "Zazpi hizkuntza dakizki; ondo moldatzen da, beraz, eta badu ikasteko gogoa". Beste taldekideak ere animatuta daudela baieztatu du. Gazteen erreferente diren neurrian, goi mailako kirol taldeetan euskarak presentzia izateak ekarpena egin dezake normalizazioan.

MOTA GUZTIETAKO LAN ETA KONPONKETAK ETXETAN NAHIZ DENDETAN

- Arotzeria
- Margolanak
- Zaharberritze lanak
- Lorategiak
- Iturgintza
- Sarrailak
- Elektrizitatea
- Instalazio zein muntaketak
- Garbiketa bereziak eta abar

DAVID:
655 70 98 93

Irungo La Salle HH

UXUE ITURRIA RECARTE

MAIALEN PÉREZ CONDE

Arrigain Asesores S.L.

ZERGAK - LAN-KONTUAK - KONTULARITZA - ASEGURUAK

Asesoría Arrigain

Zerbitzuak:

Kudeaketa administratiboak, laboralak,
kontularitzakoak eta zergenak
Ibilgailuen eskualdaketak
Ondarearen transmisioak, dohaintzak, oinordekotzak...

Errenta aitorpenak
Aseguru orokorrak
Eta abar...

San Ramon kalea, 3 atzea, sarbidea Euskal Herria hiribidetik – Irun Telf. 943636080 - 676756975 www.arrigain.es asesoria@arrigain.es

ANDOITZ VILLAFRANCA:

“Gabonetan familiarekin besterik ez dut jokatzen musean”

Bikote irundar batek irabazi du Korrikaren aldeko Gipuzkoako Mus Txapelketa. Eskarmentu handiagoa duen Asier Alberrorekin aritu da Andoitz Villafranca. Irungo eta Behe Bidasoko kanporaketak gainditu ondoren, final handia Astigarragan jokatu dute, otsailaren 28an.

Asier Alberro eta Andoitz Villafranca, txapelketa irabazi ondoren.

- Nola eman zenuten izena txapelketan?

Nire neska-lagunak AEKn izan zuen txapelketaren berri. Hasieran batera parte hartzeko asmoa genuen, baina azkenean ez zuen nahi izan. Asier Alberrori esan nion orduan. Afizio handia du, astean bizpahiru aldiz gelditzen baita musean aritzeko Palace tabernan elkartzen den koadrila batekin. Nik, berriz, ohitura handirik ez daukat. Gabonetan familiarekin besterik ez dut jokatzen musean.

- Balio erantsia al zuen txapelketak, Korrikaren aldekoa izateagatik?

Bai, xarma berezia dauka. Irungo AEKn jende ezagun asko daukat, eta irabazi bezain pronto deitu genuen elkar. Ondo dago, Korrikaren inguruan beste hainbat jarduera antolatzen dituztelako.

- Zein izan zen zuen ibilbidea txapelketan?

Lehenengo, Irun mailan jokatu genuen, Hazia elkartean. Bikote gehienak ezagutzen genituen, AEKn edo Mosku inguruan dabilen jendea zen. Bigarren izan ginen, eta eskualdeko kanporaketarako sailkatu ginen. Irungo bi bikote eta Hondarribiko beste bi aritu ginen. Irabazita, Gipuzkoako finalera pasatzea lortu genuen. Astigarragan izan zen.

- Gogorra izan al zen finala?

Bitxia izan zen, lehen kanporaketa galdu genuelako. Baina bikoteen kopurua bakoitia zenez, zozketa bidez bikoteetako bati bigarren aukera eman zioten. Guri egokitu zitzaigun. Aurrera egin genuen, eta finalera iritsi ginen. Hasieran kanpoan utzi gintuen bikotea izan genuen aurkari. Lasarte-Oriako bikotea zen, oso ona, txapelketetan ibilitakoa eta esperientzia handikoa. Hiru partida irabaztera jokatzen ari ginen ordura arte, baina 2-2koarekin laura luzatzea erabaki genuen. Azkenean, 4-3 irabazi genuen.

- Urduritasunik izan al zenuten?

Nik finalean kartak dardarka nituen eskuetan. Asierrek ez, txapelketa gehiagotan parte hartu izan duelako. Gero, ilusioa egiten du txapela etxera eramateak. Hortxe dago, zintzilik. Gainera afaria irabazi genuen, Hondarribiko Laia jatetxean.

- Zeintzuk dira mus jokoaren gakoak?

Eskura dituzun jokaldiak irabazi behar dituzu. Gainerakoetan, zer edo zer ateratzen baldin baduzu, ondo. Bestalde, guk ez dugu inoiz musik ematen. Beti moztu egiten dugu, karta eskasak eduki arren. Batzuetan ezustekoren bat emango dizute, baina merezi du. Astigarragako finalean mus bakar bat ere ez zen egon.

- Lau erregerekin, edo zortzirekin?

Gu laurekin aritzen gara. Txapelketan ere laurekin jokatu genuen, Gipuzkoako toki batzuetan zortzirekin jokatzeko ohitura duten arren.

CENTRO KINEESIS
- METODOA: K-STRETCH ®
- METODOA: HIPOPRESIBOA®
- BERREZIKETA POSTURAL GLOBALA (RPG)
- PILATES
- PILATES HAURDUNENTZAT
www.kineesis.net www.k-stretch.com
Arantzazteko Jauna kalea, 10 behe. IRUN. 943 626 983 - 606 298 640

Txingudi Ikastola BHI

Literatur Sariak

Emandako ipuin zatitik abiatuta, ikasleak bere ipuina asmatu behar du.

...Atzetik inor ez zuela jabetu zenean, Garmendiak mantsotu egin zuen zaldiaren abiada eta lasai ekin zion mendian gorako bideari. Hiru egunez izan zituen atzetik Harry Garbi-ren morroiak. Arima ahoan zuela ekin zion ihesari Wilde Rose-ko senar-emazteen hilketa berari egotzi ziotenean, eta zalantzarik gabe ezkutalekurik hoberena aukeratu zuen: basamortu ondoko mendiak...

1. maila
Aipamen Berezia
Elene Sagardia

Ihesaldi luzea eta neketsua

Atzetik inor ez zuela jabetu zenean, Garmendiak mantsotu egin zuen zaldiaren abiada eta lasai ekin zion mendian gorako bideari. Hiru egunez izan zituen atzetik Harry Garbi-ren morroiak. Arima ahoan zuela ekin zion ihesari Wilde Rose-ko senar-emazteen hilketa berari egotzi ziotenean, eta zalantzarik gabe ezkutalekurik hoberena aukeratu zuen: basamortu ondoko mendiak.

Han, beti ezkutuan zebilen eta bizimodu berrira egokitzen; hau da, ehiza egiten jateko, animaliak hiltzen larrua eskuratzeko... Denboraren poderioz, inguruan bizi ziren indiarrekin harremana egin zuen, ehizan lagunduz, tranpak eginez, beraien kultura ezagutuz... Hala ere, beti kontuan izaten zuen Harry eta bere morroiak atzetik zeuzkala, atxilotu edo hil nahian.

Mendian zegoen bitartean, denbora asko zeukan pentsatzeko eta Wilde Rose-ko senar-emazteen hilketan asko pentsatzen zuen. Gauak eta egunak pasatzen zituen zuhaitz baten gainean pentsatzen. Egun batean, damutu egin zen berak egindakoaz, hau da, Wilde Rose-ko senar-emazteen hilketaz. Hala ere, Garmendia txikia zenean, Wilde Rose-ko senarrak aita hiltzen ikusi zuen eta gorroto hori beti izan zuen bere barruan.

Pentsamendu horietan zebilela, bere burua justiziaren aurrera eramatea erabaki zuen istorio guztia kontatzeko eta hilketa hori berari ez egozteko. Bazekien oso zaila izango zela dena azaltzea, bere aitaren hilketa ikusi zuen bakarra bera izan zelako.

Entregatzera zihoanean, Harry Garbiren morroiek ikusi zuten eta galderarik egin gabe, Garmendia gaixoaren bizimodu triste eta ilunari bukaera ema zioten, tiroz josiz.

KONTU FALTSUAK TWITTER-EN

Gero eta zailago da Twitter konturik ez duen norbait ospetsua topatzea, ospe mota zeinahi dela ere, gainerakoan nortasun digitala landu gabe badu ere. Arrazoia, funtsean, autobabesa da; izan ere, ez baldin badu berak egiten, laster egingo du baten batek, haren izenez eta haren ordez.

Halako kasuak gertatu dira dagoeneko, eta batzuk, xelebre samarrak. Hau da: nolabaiteko sona duten zenbaitek, ustez, beren Twitter kontua sortu eta berehala tweet edo txio sutsuak zabaldu dituzte lau haizeetara... harik eta kontu horiek fake delakoak, hots, faltsuak zirela enteratzen garen arte, pertsonaiekin zerikusirik batere ez duten lagunek sortuak direnez gero.

Batik bat bi motatakoak dira: batak, izen "ofiziala" darabil; besteak, antzeko izena parodiatuta, baina lehen begiradan -eta halaxe kontsumitzen dugu maiztxo sarean- benetakoa dirudiena.

Lehenen artean gogoangarria da Iñaki Gabilondorena, 2013 @Gabilondo_I delakoak ordeztu zuena. Kontu hark bi ordu eskasetan 25.000 jarraitzaile bereganatu zituen; besteak beste, Jordi Evole eta beste txiolari ospetsu zenbait, ongi etorria ematearekin batera nolabait kontua ontzat eman zutena. Egun batzuk geroago kontuak @trolitico izena hartu zuen, berekin jarraitzaile mordoa zeramala. Ez zuen bide luzea egin, ordea, Twitter-ek handik gutxira ezabatu zuen eta.

Istorio barregarrienak, aldiz, bigarren motako kasuetan aurkitzen ditugu; hala nola, @EspeonzaAguirre, 227.000 jarraitzaile eskuratu zituena. Jakina, Madrileko PPren buruaren nortasun bipila parodiatzen zuen.

Ospetsuen kontu faltsuez gain, badago beste gai interesgarririk: jarraitzaileen kontu faltsuena. 2014ko irailean jakinarazi zen @marianorajoy kontuaren 160.000 jarraitzaile inguru profil faltsuak edo aktibitaterik gabeak zirela; areago, egun bakar batean, 60.000 lagun gehitu zituen. Bere kontuaren arduradunek erasotzat hartu zuten hau guztia.

Jende ospetsuen kontua benetan haiena ote den jakin nahi izatera, baliabide eraginkor bakarra dago: erabiltzailearen izenaren eskuinaldean plataformak jartzen duen egiaztatze-domina urdin txikia.

Dena den, batzuetan hobeto pasatzen ahal dugu pertsonaia batzuen sasikontuak jarraituz ezen ez benetakoak. Hori bai, behar bezalako bereizketa egiteko, aski dugu egiaztatze-domina urdinetara jotzea.

Pablo Moratinos
Marketing Online-ko aholkularia
3yMedia Comunicación Digital

BORJA OLAZABAL:

"Tentsioak, nekeak eta goseak dena biderkatzen dute"

Borja Olazabal irundarrak *El Conquistador del fin del mundo* telebista saioan parte hartu du.

ETB2ko *El Conquistador del Fin del Mundo* saioa utzi du aurtengo lehiakide irundarrak. Borja Olazabal kazetariak baieztatu du lehiatik kanpo geratu izanak momentuan ez ziola min handirik eman: "Abentura luze egiten da, eta etxera itzultzeko aukera, ondo jatekoa eta lo egitekoa erakargarria da". Baina denborak eta distantziak eskaintzen duen ikuspegitik, aurrerago iritsi ez izanaren pena duela onartu du. Ustekabean sartu zen abenturan, eta esperientzia "paregabea" bizi izan duela uste du Borja Olazabalek.

- Programan parte hartu izanaren ondorioak nabaritu dituzu kalean? Jendeak galdetzen dizu?
Larunbat gauetan batez ere, jendeak lotsa gutxiago izaten duelako. Barregarria da, nekagarria baino gehiago. Arazorik gabe atera naiteke etxetik. Esperientzia bitxiena Hernanin bizi izan nuen, sagartodegi batean bazkaldu ondoren. Egun hartan inondik ezagutzen ez nuen jendea hurbildu zitzaidan hitz egitera.

Borja Olazabal, irabazitako duelu batean.

Bestalde, debateetan eta sare sozialetan izaten diren eztabaidei dagokienez, amorrua ematen du kritikak entzun eta erantzuteko aukera ez izateak.

- Oihartzun hori bilatzen zenuen parte hartzea erabaki zenuenean?
Ez. Nik Radio Euskadin egiten dut lan, eta Gipuzkoako casting-a Miramonen egiten dute. Egun batean, lanetik ateratakoan kartela ikusi eta animatu nintzen. Besterik gabe. Ni ez naiz inoiz *El Conquistador del fin del mundo*ren jarraitzaile sutsua izan. Oihartzuna izatea ez nuen helburu, badakidalako programak ez duela lanerako aterik irekitzen.

- Espero zenuenarekin egin zenuen topo?
Nik badakit telebistak nola funtzionatzen duen; beraz, telebista saio bat espero nuen. Banekien dena ez zela horren espontaneoa izango. Harritu ninduena izan zen parte hartzen duen jende askok ez dakiela hori, ez duela imajinatzen. Jendea haserretu egiten da proba baten aurretik asko itxaron behar delako. Baina grabazioa prestatu behar da, kamera asko daude, soinu probak egin behar dira, eta lan handia behar du muntaia horrek guztiak.

-Orduan, benetako abentura al da?
Abentura da, bai, baina telebista ere bai. Egia da nik 2.000 metrotik gora egin dudala lo, elur ekaitz baten erdian eta hotz ikaragarriarekin. Egia da ez dizutela jatekorik ematen, eta gose handia pasatzen dela. Baina nik banekien programa batean nengoela, jende asko neukala inguruan, eta ez zitzaidala ezer larririk gertatuko. Horrek lasaitasuna ematen du, eta egia da abentura-kutsua murrizten duela nolabait.

- Zer nolako harremana izan zenuen lehiakideekin eta kapitainekin?
Lehiakideekin oso harreman ona. Egia da profil ezberdinetako jendea aukeratzen dutela, eta nirekin zerikusirik ez duten batzuk bazeudela. Lagun koadrilan edukiko ez nuen jendearekin ere ondo moldatu nintzen Patagonian. Bi kapitain-bikote izan nituen. Eneko Van Horenbekerekin eta Roberto Laisekarekin harremana hotza izan zela esango nuke. Juanito Oiarzabalekin eta Jose Luis Kortarekin beste kontu bat izan zen. Ezer gutxirengatik sutan jartzen dira, eta sekulako zalaparta sortzen dute. Kortaren kasua berezia da, eztabaidaren ondoren aitona maitakorra baita.

- Nola azal daitezke sortzen diren iskanbila guztiak?
Aste osoan eskukada bat arroz eta bi sardina jan dituzu, eta proba irabazteagatik Argentinako haragi errea emango dizutela esaten dizute. Lehoien kaiolan haragia botatzea da hori. Egoera horretan nola edo hala irabaztea baizik ez duzu buruan. Horregatik ikusten dira talka eta eztabaida horiek. Muturreko egoera batean zaudenean, arazorik txikiena ere puztu egiten da.

- Arlo emozionalean ere bai.
Hilabete baino gehiago irauten du programak. Gainera inkomunikatuta zaude, jendea eta eguneroko gauzak faltan sumatzen dituzu. Tentsioak, nekeak eta goseak dena biderkatzen dute, eta azkenean eztanda egiten duzu. Nire kasuan, kirolean beti protagonista edo lider izateko ohitura izan dut. Eta Patagonian bigarren maila batean ikusi nuen nire burua. Dena den, pozik nago probetan egindako lanarekin. Duelua irabaztea, adibidez, ikaragarria izan zen.

- El Pilar eskolako jertsea eta Bidasoaren berrogeita hamargarren urteurreneko kamiseta eraman zenituen. Patagonian ere ez zenituen sustraiak ahaztu.
El Pilarreko jertsearekin nire haurtzaroko lagunak, nire inguruko jendea gogoratu nahi nituen. Bidasoa nire talde kuttuna da, eta familiatik datorkit. Kamisetarekin Bidasoako bazkide egin ninduen aitona gogoratu nuen, kamiseta diseinatu zuen laguna ere bai, eta, gainera, harremana du nire lanbidearekin. Nire burua definitzeko osagai aproposak dira.

Manu Maritxalarrekin liskarrak izan zituen Borjak proba batean.

Lehiaketak

MUSIKIRUN V. MAKETA LEHIAKETA GAZTEARTEAN

Taldeek edo bakarlariek parte hartu ahal izango dute, jatorri geografikoa eta musika estiloa edozein direlarik ere.

Betebeharrak:

1. Maketa: gutxienez bi abesti eta gehienez bost izan beharko dituzte.

2. Izena emateko fitxa bete (www.irun.org/igazte-en aurkitu dezakezu).

3. Taldearen edo bakarlariaren egungo argazkia formatu digitalean.

- Izena emateko? igazte@irun.org-en, iGazteko bulegoetan.

- Epea? 2015eko apirilaren 24ra arte.

musikirun

Ekintzak

AUZOLANDEGIAK 2015

Auzolandegietan leku askotako gazteak biltzen dira, euren borondatez eta ordainetan ezer jaso gabe, aldi batez elkarrekin bizi eta gizarte osoarekin zerikusia duen proiekturen batean parte hartzeko asmotan.

- Epea? Apirilaren 8tik 14ra

- Informazio gehiago? gazteria-auzolandegiak@ej-gv.es

ASEXORATE. SEXU HEZIKETA TAILERRA

“Ni, ni neu? eta mundua" gazteentzat zuzendutako tailerra da.

- Noiz? Apirilak 17.

- Ordua? 17:30 - 19:30.

- Lekua? Martindozenea Gaztelekua.

- Norentzat? 17 - 20 urteko gazteentzat.

- Izena emateko? www.irun.org

GAZTE-TXARTELAREN PACK 2015

PACK GTX

Aisialdiaren, kulturaren, kirolaren eta beste zenbait abantailen berri izateko App berria eskuragarri dago.

Google PlayApp Store-n deskargatu

irun gazte informazioa

- Aurrez aurre: Foruen karrikako 2-behea
- Telefonoz: 943 50 54 44 / 943 50 54 40
- Posta elektronikoz: igazte@irun.org
- Webean: www.irun.org/igazte
- WhatsApp bidez: 607 771 173

IRUN UDAN

IRUN UDAN 2015

www.irun.org/igazte

Irungo Udalak udan antolatutako ekintzen berri www.irun.org/igazte webgunean aurki dezakezu.

Informazio berria iritsi ahala webgunea eguneratuko da.

Informazioa:

- Udaleku Irekiak (ordu batzuk)
- Udako Udalekuak eta kanpamentuak
- Kirol Ekintzak
- Ikastaroak, tailerak, bisitak
- GAZTE agenda
- Uda GAZTE: ekintzak
- Hizkuntzak atzerrian
- Auzolandegiak
- Lankidetza, Boluntariotza eta hizkuntzak
- Elkartasun Brigadak eta Bidaiak

Apirilak 3

Zer? Oiasso Museotik irtenda, meatzeetako trena Irugurutzetako mea-barrutira joango da, eta han meatzeak eta kaltzinazio labeak bisitatuko dira.

Ordua? 12:00etan.
Prezioa: 5,40 euro.
Izena emateko? 943639353.

Apirilak 10

Zer? Soropilaren zainketa-eta mantentze-lanen ikastaroa Endanearen eskutik.

Ordua? 16:00etan.

Prezioa? Endanearen txartelarekin, dohainik.
Prezioa txartelik gabe: 5 €.

Apirilak 11

Zer? Ama Xantalengo Nekropoliaren bisita. Erdi Aroko baseliza dagoen orubean antzinako Oiassoko biztanleak ehorzten zituzten tokia azaldu zen. Bertan, 100etik gota errauts-ontzi gora agertu ziren, barruan ondasunak zituztela.

Ordua? 11:00etan.
Prezioa: 5,40 €.
Izena emateko? 943639353.

Apirilak 11-12

Zer? Expotaku Manga Erakusketaren lehenengo edizioa egingo da Ficoban.

Ordua? 10:00-20:20
Prezioa: Egun bakarra, 5 €; bi egunak, 8 €.

Apririlak 18

Zer? Ardoaren eta Ardo dastaketaren inguruko ikastaroa, Endaneak antolatuta.

Ordua? 12:00etan eta 18:00etan.
Prezioa: Doan.
Izena emateko: infor@endanea.com; 943 64 17 10; edo Endanean bertan.

Irungo Hiria XXXIII. López Ufarte Lehiaketa

Aste Santuan XXXIII. López Ufarte Lehiaketa jokatuko da. Aurtengoa berezia izango da Ricardo Gómez Dunboa Eguzkiren presidentea berriki zendu delako. Urte askotan futbolaren eta Irunen alde lan egin du. Doluminak familiari eta lagunei.

Noiz? Apirilaren 4tik 6ra arte.
Parte-hartzaileak? Real Sociedad, Real Zaragoza, Athletic Club, C.A. Osasuna, S.D. Eibar, Gamba Osaka (Japonia) eta Real Unión.

Irungo eskolarteko II. Bertso-Paper lehiaketa

Abian da Irungo eskolarteko II. bertso-paper lehiaketa, LHko 2. eta 3. zikloetako eta DBH osoko ikasleei zuzendua.

Zehaztapenak: LHko ikasleek, 2na bertso edo 4na kopla gehienez, nahi duten doinu eta neurrian.

DBHko ikasleek, 3na bertso edo 6na kopla gehienez, nahi duten doinu eta neurrian.

Epea: Apirilaren 17 arte.

Parte hartzeko: irungobertsopaperak@gmail.com helbide elektronikora bidali behar dira lanak, artxiboaren izena, izen-abizenak, eskola eta maila adierazita.

Antolatzaileak: Gipuzkoako Bertsozale Elkarteak eta Irunabarrek elkarlanean antolatua.

Zure erosketa **Irungo Merkatuan**
egin nahi baduzu baina joaterik
ez baduzu, egin **Internetez**



Txartel hau aurkeztuz,
garraio zerbitzua dohainik
DTO-Irunero-1415

laplazadeabastos.com
Betidaniko erosketa, orain **on line**